



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 23a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan. Erretiratutako mozioa (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik al duen, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako” kontratuaren klausulak aldatzeko administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (7. or.).

—Galdera, jakiteko Sanz jaunak Zapatero jaunarengandik jaso omen dituen bermeak idatziak eta sinatuak dauden, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafar guztiak dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea; hala dago jasota Konstituzioaren 47. artikuluan. Hala ere, gizarte-educia duten Konstituzioko hainbat manurekin gertatzen den bezala, gizarte-sektore zabalek zailtasun handiak dituzte etxebizitza lortzeko, ordaintzeko moduko prezioa duen etxebizitza gutxi baitago.

Etxebizitza premia biziko ondasuna da. Etxebizitza librearen prezioak, ordea, etengabe, asko eta modu jarraian egin du gora, eta horrek erakusten du ondasun hori, funtsean, inbertsio eta espekulazio-bide gisa erabiltzen dela, hau da, zenbait sektore eta interesek inbertitzeko eta espekulatzeko erabiltzen dutela.

Horren ondorioz, herritar askok eta askok ezinezkoa du merkatu horretan sartzea eta, beraz, ezin du gauzatu etxebizitza duin eta egokia izateko konstituzio-eskubidea.

Hori horrela, etxebizitzaren politika publikoa erabat zentzuzkoa bihurtzen da: etxebizitza planak, babes ofizialeko etxeen sustapenak, dirulaguntzak eta sorospenak, lurzoru-ondare publikoak, etxebizitzaren merkaturaren eraginkortasunez esku hartzeko helburuaz botere publikoak tresnaz hornitzeko arauak.

Bada, politika publiko horiek, urteak joan eta urteak etorri, erabat aski ezak izan dira, eta gaur ere hala dira; aurrekontuetan horretarako jarri diren baliabideak oso urriak izan dira, eta gaur ere hala dira, eta esku-hartze publikoko tresnak (desjabetzea, udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialak, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea), politika eraginkorra eta orokorra gauzatzeko, oso gutxi izan dira lurzorua bezalako funtsezko merkatuetan.

Botere publikoak ez dira behar dena egiten ari, beraz, espekulaziozko merkatu librean etxebizitza erosterik ez duten nafar ugariak modua izan dezaten, aldiz, politika publikoei esker, funtsezko ondasun hori lortzeko.

Horregatik, gizarte-arazo larri honi aurre egiteko, jarrera muturrekoa eta erabakigarria behar da. Etxebizitza beharrezko eta funtsezko ondasuna da edozein herritarrentzat.

Ondorioz, foru lege honetako lehenengo artikuluan, etxebizitza eskuratzeko eskubidea eskubide subjektiboa eta unibertsal dela aitortu da, eta,

beraz, herritarrek administrazioari eskubide horren betetzea juridikoki exijitzeko modukoa.

Botere publikoek, horrenbestez, gizarte-eskubide hori benetan gauzatzera zuzenduriko politikiei behar duten lehentasuna eman beharko diete eta beharrezko baliabideez hornitu beharko dituzte politika horiek.

Horrela, garrantzitsua da alokairuari, etxebizitzaren arloko politika publikoen barrenean, bulkada askoz handiagoa ematea. Aurrekoa oinarri, 4.1 artikuluan ezarri da zortzi urtean 12.000 etxebizitza eraikiko direla alokairuan emateko, eta, lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen denez, babes araubideren bati loturiko etxebizitza-ahalmen berriaren gutxienez % 35 alokairuan emateko etxebizitzak izanen dira.

Era berean, hutsik dauden etxebizitzen multzo handia, etxebizitza guztien %15 gutxi gorabehera, lehenbailehen atera beharra dago alokairuko etxebizitzen merkatura. Legeko 4. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan arautzen dena da etxebizitza hutsen errolda eginen dela eta foru lege bat onetsiko dela, zeinak etxebizitza hutsak benetan alokairua ateratzeko jarduera publikoen multzoa arautuko baitu, jarduera fiskalak eta desjabetzekoak barne direla.

Bereziki muntaduna da, era berean, bosgarren artikulua, zeinaren bitartez foru gobernuari agintzen baitzaio tramita dezan udalez gaindiko plan sektorial bat, interes orokorreko adierazpena eta guzti, Nafarroako Gobernuak Iruñerriko udalekin sinatu behar duen lurzorua eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzak-hitzarmenaren osagarri. Tresna horien helburua, alegia, hitzarmenarena eta udalez gaindiko planarena, 25.000 etxebizitza babestu berri planifikatu eta eraikitzea da, Iruñerrian datozen zazpi urteetarako jadanik aurreikusitako etxebizitza-planeamenduak gain.

Bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, azkenik, herritarrei bideak gehiago ireki nahi zaizkie udal planeamenduak zehazteko prozesuetan.

Lehenengo artikulua. Xedea

1. Foru lege honen funtsezko xedea da Nafarroako Foru Komunitatean bermatzea etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta unibertsala.

2. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta unibertsala erabiltzea bermatuko duen politika publikoen multzoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek eratuko dute eta exekutatu dute.

Bigarren artikulua. Eskubidearen titularrak.

Foru lege honetako 1. artikuluan etxebizitza eskuratzeko aitorturiko eskubidearen titularrak dira Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonak, baldin eta gutxienez ere hiru urte badaramatzate etenik gabe erroldatuta Nafarroako edozein udaletan eta, orobat, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko Foru Legeko III. tituluko 1. kapituluaren etxebizitza babestua lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Hirugarren artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaz eta unibertsalaz baliatzea.

Nafarroako Gobernuak bermatu behar die foru lege honetan aitorturiko eskubidearen titularrei, hots, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboen eta unibertsalaren titularrei, eskubideaz baliatu ahal izatea eta beraz etxebizitza bat eskuratzeko, gehienez ere eskubideaz baliatzeko eskatu zutenetik hiru urteko epean.

Laugarren artikulua. Alokairuan emateko etxebizitzen ondare publikoa eta etxebizitza hutsen gaineko ekintzak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du Vinsa sozietate publikoak hurrengo zortzi urteetan 1.500 etxebizitza eginen dituela, gutxienez, urteko, alokairuan emateko; horrela, alokairuan emateko etxebizitzen ondare bat izanen da, eta foru lege honetako 1. artikuluan aitorturiko eskubideaz baliatzea ahalbidetuko da.

Nafarroako Gobernuak errentariei bermatuko die ordaindu beharreko alokairu babestuak ez duela dituzten dirusarreraren % 30 gaintuko.

2.- Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean hutsik dauden etxeen zerrenda eginen du. Horretarako, arau honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean Gobernuak erregelamendu bat onetsiko du non etxebizitza hutsaren kontzeptua definituko duen eta errolda hori egiteko tresnak ezarriko dituen.

Hutsik dauden etxebizitzen errolda egiterakoan, toki entitateek Nafarroako Gobernuari laguntzeko betebeharra daukate; horrenbestez, Gobernuari eskatutako informazio guztia helaraziko diote eta errolda egiteko beharrezkoak diren ekintzak gauzatu dituzte.

3.- Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorriko dio foru lege proiektu bat non zehaztuko baita etxebizitza hutsak alokairuan jarraziko dituzten ekintzen eta politiken multzoa.

Foru lege horrek jaso beharko dituen ekintzen eta politiken artean egon beharko dute, bestek

beste, ekintza eta politika fiskalak eta desjabetze-koak.

Bosgarren artikulua. Lurzoruaren eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzaz hitzarmena Iruñerriko udalekin.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Iruñerriko udalekin lankidetzaz hitzarmen bat negoziatu eta sinatu beharko du lurzoruaren arloko politikari eta hirigintza-plangintzari buruz; hitzarmenaren helburua izanen da Iruñerrian hurrengo zazpi urteetan izanen den etxebizitza babestuen beharrari erantzuteko behar adina lurzoru lortzea.

Babestutako etxebizitzaren zer eskaintza dagoen jadanik aurreikusia eta planifikatua, hitzarmen horrek, hirigintza-planeamenduko aurreikuspenetan, gutxienez 25.000 etxebizitza gehiago eraikitze adina lurzoru egoki zehaztu eta ekarri beharko du.

Era berean, Nafarroako Gobernuak ahalik eta arinena, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 45. artikuluekin bat, udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektorial bat tramitatuko du, zeinak eraginen baitie lurzoruaren eta hirigintza-plangintzaren arloko lankidetzaz hitzarmena sinatu ez duten udalei edo horren exekuzioa justifikaziorik gabe eta modu larrian atzeratzen duten udalei. Udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektorial horren helburua izanen da xedapen gehigarri honetako bigarren lerrokadan jasotako hirigintza planeamendua onestea Iruñerrian.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 47. artikuluekin bat, Nafarroako Gobernuak inte-

res orokorreko zatiz joko du xedapen gehigarri honetan jasotako lankidetzaz hitzarmenaren aurreikusitako etxebizitza babestuen eraikuntza.

Lehenengo xedapen gehigarria. Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 52. artikuluen aldaketak.

Artikulu honetako 1. idatz-zatiak ezarritakoaren arabera babes araubideren bati loturiko etxebizitza-ahalmen berriaren % 50 bideratu beharko da, gutxienez, alokairuan emateko etxebizitzak eraikitzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Herritarren parte-hartzea.

Udalek herritarrek udal plan orokorrean parte hartzeko prozesu berezia jarriko dute abian.

Horrela, prozesu horretan erreferendum bidezko zuzeneko kontsulta egonen da jasoa, plana onartzea edo planaren funtsezko aldaketak proposatzen direnerako.

Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean, legea erregelamendu bidez garatuko du, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuak proposatuta.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

Azken xedapena.

Foru Lege hau 2008ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien.

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2007ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Audenasako akziodun garrantzitsua baita, A-15 autobidearen erabiltzaileei, orain arte bezala, erabiltzaile-txartela kosturik gabe berritu eta etxera bidal dakien.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan.

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan."

Legebiltzarreko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak 2007ko urriaren 17an egindako

bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzeari. Mozio hori 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko urriaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratutzat jotzea: Nafarroako Gobernua premiatzen da minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programari buruzko apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretua alda dezan.

Mozio hori 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik al duen, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako” kontratuaren klausulak aldatzeko administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik al duen “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako” kontratuaren klausulak aldatzeko administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urriaren 25ean egitekoa den Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin. Galderaren xedea da jakitea zer asmo duen Gobernuak, A-12 errepidearen “itzaleko bidesariaren” gainean Comptos Ganberak eginiko txostena dela-eta, “Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakida” kontratuaren klausulak aldatzeko administrazio-egintzak –autobia hori egiteko lanak abian ziren bitartean gauzaturikoak– ofizioz berrikusteari dagokionez, eta ea asmorik ote duen eginiko zoritxarreko kudeaketa-

rengatik dagokion erantzukizun politikoa bere gain hartzeko.

Zioak:

Parlamentu honetako Ekonomia Batzordean berriki eginiko agerraldian, Comptos Ganberako lehendakariak agerian utzi zuen ez dagoela ados A-12 autobiarenean (Bideko Autobia) lanak egiten ari ziren bitartean Nafarroako Gobernuak onetsiriko bi aldaketekin. Organo fiskalizatzailearen txostenak agerian uzten du ezen bai prezio-berrikuspena, 35 milioi eurokoa, bai aurreikusita zegoena baino sei hilabete lehenago lanak bukatzeagatik emandako ordainketa, kalkuluen arabera 19.9 milioi eurokoa, emakida-hartzailearen ekimenez eginiko urratsak izan zirela, eta ez kasu batean eta ez bestean ez zela beharrezkoa izan baldintza-orria aldatzea.

Nafarroako Gobernuak aldaketak egiteko erabakitzen dituen administrazio-egintzak, Comptos Ganberak epaiturikoak –55 milioi euroko zenbatekoa egiten dute, eta datozen hogeita bost urteetan ordaindu beharreko kanona nabarmen igotzen dute, guztira % 40,2 egiten baitu gora–, Gobernuaren kudeaketa kaskarraren eta jarduera okerraren ondorio dira, eta emakida-hartzailearentzako onura handiagoa besterik ez dute ekartzen; horrela, bada, parlamentu-talde honen iritziz, ofizioz berrikusi beharko lirateke eta, beraz, horiek Foru Ogasunari etorkizunera begira dakarzkioten konpromiso finantzarioak kendu, datozen hamarkadetan Nafarroako herritar guztien zerga-zaman eragina izanen baitute, logikoa denez.

Gaurkotasun handiko ahozko galderaren testua:

A-12aren “itzaleko bidesariari” buruz Comptos Ganberak eginiko txostenari dagokionez: Nafarro-

ako Gobernuak asmorik al du, horri buruz duen irizian, "Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako" kontratuaren klausulak aldatzeko administrazio-egintzak –autobia hori egiteko lanek iraun bitartean erabakitakoak– ofizioz berrikusteko eta egin duen zoritxarreko

kudeaketarengatik dagokion erantzukizun politikoa bere gain hartzeko?

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko Sanz jaunak Zapatero jaunarengandik jaso omen dituen bermeak idatziak eta sinatuak dauden.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Sanz jaunak Zapatero jaunarengandik jaso omen dituen bermeak idatziak eta sinatuak dauden.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zapatero jaunak idatziak eta sinatuak al daude Sanz jaunak harengandik jaso omen dituen bermeak, hain zuzen ere Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Estatuko Legeko prestazioak finantzatzeari eta Nafarroaren eskumenak aitortzeari dagozkionak, ala besterik gabe ahoz adierazitako agindu soil bat da?

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	